

MATERIALISMO HISTERIKOA

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

Ohean



UXUE APAOLAZA LARREA

Ohea altzari bat da. Hain eroso den ia edozeren moduan, artifiziala, gizakiak perfektionatua. Ez gara hezetuta jaikitzen, lehor eta goxo baizik; ez dugu hotzik pasatzen; ez dugu inongo minik izaten esnatzean. Ohea zoragarria da, ez digu beharrik sortu, bagenuen bat, lo egitea, plazer bilakatu du. Etxe, gordeleku sabairik gabe ere. Lo ondo egin badezakezu, ahula izan bazaitezke, zeure etxea da.

Oheari begiratuta, batzuek ikusten dituzte tapakiak, ondo aireztatu beharrekoak goizero, ohea egin aurretik. Ohea egiten baduzu, logela ordenatuta dagoela dirudi; egin gabe, ez dago gela txukuntzerik. Izarak, mantak, koltxa, nordikoa. Fundak. Funden kolorea logelarena da, egunean azkena ikusten duzunetakoa, goizean lehenengoetakoa.

Izan daiteke bikoitza, lehen matrimoniokoa, orain bakoitzak daki. Bikoitza bakarrarentzat. Koltxoiak malgukidunak, aparrezkoak, latexezkoak, biskoelastikoak. Oheburu klasikoak, modernoak, minimalistak, doratuak, geometrikoak, bihurrituak. Ohebururik ez. Ohe errezedunak txikitako ametsetan. Koltxoa lurrean bota eta kitto.

Ohea altzari bat da, bagenuen behar bat plazer bilakatu du. Etxe. Ahula izan bazaitezke, zeure etxea da. Ahula. Eta beste inon izan ezin bazara, besterik izan ezin duzun egunetan, ohean baino ez zara. ●



MOTZEAN

Sindikatu deitzaileen arabera, ikasturte honetan EAEko sektore publikoan antolaturiko greben artean jendetsuena izan da martxoaren 12koa, eta batez ere garraio publikoan, hezkuntzan eta udal esparruan izan du eragin handiena. "Errotik aldatu behar dira orain arteko politika publikoak", aldarrikatu dute.

Riderren lan eskubideak bermatzen dituen direktibaren alde egin du Europar Batasunak. Frantziako Estatua eta Alemania izan dira aurka kokatu diren estatu bakarrak.

Apirilaren 2-3an epaituko dituzten 'Txetx' Etxeberri eta Beatrice Molle-Haran bakegileen errugabetzea eskatu dute 200dik gora aurpegi ezagunek Luhuson, Bake Bideak deituta.

Polizia operazio "arrazista" salatu dute Donostian: 29 lagun Poliziaren etxera eraman dituzte identifikatzeko, Martutene auzoko etxe okupatu batetik.

Espainiako Osasun Ministerioak kondoiak doan izatea nahi du, 14 urtetik 22 urtera bitarteko gazte guztientzat. Prebentzioan indarra egitea da xedea.